

Caritas Gipuzkoako 2021eko memoria



caritasgi.org

Sarrera

Eliza bezala, elkartzearen aldeko pentsamoldea edo kultura garatzea dagokigu, Frantzisko Aita Santuak behin eta berriz esaten duen bezala. Espazioak, alternatibak, esperientziak eta ekintzak sortu behar ditugu, inguratzen gaituen axolagabekeria-, bazterkeria- eta arinkeria-giroaren aurka. Gizarte komunitariorik ezari gizarte-senidetasuna kontrajari behar zaio. Alde horretatik, elkartzen duen eta eguneroko bizitzako zailtasun, zoritxar eta borroketan esku hartzen duen oinarriko eliz erakundea izan behar du Caritasek. Inor ezin da bazterretan geratu, eta gu ezin gara haien ondotik mila arazo txikiagorekin okupatuta igaro. Denok ondo bizi behar dugu, duintasunagatik, gizatasunagatik eta kristautasunagatik.

Egiten dugunaren gako-hitza "zerbitzua" da. Egiaren aurrean begiak zabalik ditugula begiratzea munduari, erantzukizunez, eta negar ere egitea, gutako edozein baino askoz okerrago bizi diren hainbeste eta hainbeste pertsonarengatik. Errukitsu, bihotzez begiratu behar dugu, minezko mundu honetatik urrundu gabe, eta lur honetako asebeteen erosotasun lotsagabetik abiatuta, errealtate faltsuak, guztiz interesatuak, sortu gabe. COVID-19ak dena baldintzatu du aurten. Gizarte-krisia areagotu egin da. Askoren bazterketa areagotu egin da. Gure etxe askotan giza bizitza izugarri okertu da.

Arazoak ez dira berriak, baina bai zaurgarriagoak. Enplegua eta etxebizitza dira oraindik ere larrienak eta egiturazkoenak. Aurrean ditugun erronkak ere



handiak dira, eta honako hauek nabarmentzen dira: eredu produktibo eta komertzialari lotutakoak, behar adinako gizarte-politika publikoen premiazko beharra, haur eta gazte zaurgarri askoren egoera eta krisi mentalari dagozkionak (estresa, antsietatea, harreman-krisia...). Gu hemen gaude, erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanean aritzeko benetako babes sozial baten eraikuntzan, eta gustura egiten dugu lan hori. Urte zaila izan arren, egin dira gauza onak ere, eta horienagatik eskerrak emanez amaitu nahi dut. Osasun-langileen lana kalitate

bikainekoa izan da. COVIDaren aurkako txertoak funtsezkoak izan dira, eta gehiago edo gutxiago justifikatutako kritika eta zalantzak gainditu dituzte. Agintarien esku-hartzea oso garrantzitsua da. Larrialdiko laguntza ekonomikoak, funtsezkoak. GKEen lana ezinbestekoa da. Langileen eta boluntarioen ahalegina, bikaina. Elkartasuna eta beste bertute asko dituen gizarte baten kontzientzia kritikoa izatea dagokigu. Kontua ez da ona dena isiltzea, zailtasunak azpimarratuz. Ez. Garrantzia eman behar diogu onari, eskertu eta bizitzak jartzen dizkigun erronkak elkarrekin lantzerantz animatu. Begirada abegitsua izan behar dugu ahulenenganako, eta denok elkarlanean aritu behar dugu gizarte gizatiarrago baten alde.

Xabier Andonegi Mendizabal
Gotzain-ordezkarria

Organigrama

LEHENDAKARIA
Jose Ignacio Munilla mons. jn.

ZUZENDARITZA-TALDEA:
Gotzain-ordezkarria: Xabier Andonegi
Zuzendaria: Jose Ramon Aramendi
Idazkari nagusia: Jose Emilio Lafuente
Administratzailea eta idazkari teknikoa: Kontxi Elepe

ARLOETAKO ARDURADUNAK
Lurraldeko ekintzaren arloa: Jon Telletxea
Etterik gabeko pertsonen arloa: Jose Antonio Lizarralde
Familia, emakume eta umeen arloa: Itziar Subinas
Etxebizitzaren eta egoitza-zentroen arloa: Rosa Hernandez
Ekonomia solidarioaren arloa: Xabier Jorri
Komunikazio eta eraginen, prestakuntzaren eta boluntariotzaren arloa: Mabel Cenizo
Kudeaketa- eta administrazio-arloa: zuzendaritza

Covid-19

COVID-19ak eragindako pandemia lehertu zenetik, Caritasen gizarte-ekintza errealtate ezezagun baterantz eraldatu zen. Aldaketa izugarri azkarrak eta ziurgabetasun ikaragarria izan ziren.

Gure jarduerak egoera berri batera egokitu behar izan zuten: lurralde fisikoa eta errealia, neurri batean, birtuala izatera igaro zen; eskubideetarako sarbideak, eta laguntza-jarduerak berak, behar bezala garatu gabe genuen alfabetatze digitala ekarri zuten; gure proiektu- eta programa-sarea berrantolatu behar izan genuen egoera ezezagun hartarako, eta "jarraipen berri bat" eman zitzaion.

Zenbait berrantolaketa eta metodologia berri egoteaz gain, pandemiaren ondorioak gehien jasan dituzten pertsonen parte hartzen duten proiektuak berrantolatu eta dimentsionatu behar izan ziren.

Hala eta guztiz ere, egokitzapen, aldaketa edo metodologia berriak egon arren, gure misioari eta printzipioei eutsi diegu: pertsonaren zentraltasuna, laguntza-prozesu integralei eustea, kalitatez eta berotasunez, eta eskubideen ikuspegitik abiatuta.

Nabarmentzekoa da pandemiak pertsonengan dituen ondorioei aurre egiten laguntzeko zeharkako ardatz gisa osasun mentala eta emozionala azkar txertatzeko egindako ahalegina.

Pandemia hasi zenetik, aparteko zaurgarritasuna zuten egoerak ikusi ziren. **Adineko pertsonak** isolatuta geratu ziren, eguneko zentroak itxita, senideen edo boluntarioen bisitarik gabe eta bakardadean.

Era berean, konfinamenduak agerian utzi zuten normalean oso ikusezina den talde bat: **etxerik gabeko egoeran dauden pertsonak**. Presazko koordinazio iraunkorra behar izan zen, espazioak aldatzeko eta berriak egokitzeko.

Caritasek lagundutako haur, gazte eta nerabeei buruzko kezka berezi bat egon zen. Hezkuntza-prozesua jarraitzeko orduan, **arrakala digitalak** garrantzi handiagoa hartu zuten, bai eta faktura emozionalak ere. Kezka handiagoa eragin zuen **administrazio-egoera irregularrean** eta bizileku finkorik gabe zeuden pertsonen egoerak ere.

Azkenik, ikusezintasunean geratu zen beste kolektibo bat aipatu behar dugu: **prostituzio-testuinguruan** klubetan edo pisuetan pilotuta zeuden emakumeak, diru-sarrerarik gabe, elikagairik gabe, eta hartutako zorrak ordaindu ezinik.

Datu esanguratsuak

Boluntarioak

Guztira **868**

Emakumeak **%66**

Gizonak **%34**

Lagundutako pertsonak

Guztira **15.351**

Emakumeak **%51**


Gizonak **%49**

Migratzaileak **%76**

Nazionalak **%24**

Laguntza zuzenak


Parrokia eta zentroetan emandako laguntzak



Homigaiak **105.213€**
 Garraioa **53.499€**
 Enplegua/prestakuntza **43.014€**
 Osasuna **41.895€**
 Proiektuak **20.644€**
 Dokumentazioa **11.505€**


Bilakaera

Lagundutako pertsonak (2018-2021)



Bilakaera

Laguntza zuzenak (2018-2021)



Lurraldeko ekintzaren arloa

Gure aukera oinarritzko premiak asetzen lagunduko duen laguntza ematea da, eta sustapenera, autonomiara, erantzukidetasunera eta pertsonen parte-hartzea bideratutako prozesu bihurtzea laguntza hori. CARITAS GIPUZKOAN, Caritasen parroketako sare zabalaren eta haietako boluntario-taldeen bidez egiten da batez ere zaugarritasun-egoeran dauden eta motaren bateko laguntza eskatzen duten pertsonen harrera.


- Harreraeta laguntza prozesuan, funtsezko hiru momentu egoten dira aldi berean:**
- ❖ **Pertsona hartzea eta harrera egitea.**
 - ❖ **Arreta pertsonalizatua eskaintzea.**
 - ❖ **Baldintza egokiak ematen badira, eta pertsonak edo familiak nahi badute, lagundutako bide bat hastea elkarrekin.**

Komunitate-animazioa

Azpiraratzekoa da boluntarioek laguntzarako eta zaintzarako eskaintzen duten dedikazioa. Komunitate-animazioak gizarteko, parrokiako, auzoko eta abarreko bizitzan parte hartzen duten pertsonak behar ditu. Gizarte-ehun komunitarioa birsortu behar dugu, eta kohesioa eraiki. Denon artean komunitate bat osatzeko gai baldin bagara aterako gara egoera honetatik. Sendotutako gizartea behar dugu, gizarte-oinarri sendoak dituzten eta guztien ongizatea bultzatzen duten sareez osatutako erakundeez eratua.


Onuradunak

(2018-2021)



Inbertsioa

(2018-2021)



Etixerik gabeko pertsonen arloa

Etixerik gabeko pertsonen arloaren helburua gizarte-eta bizileku-bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta eta laguntza ematea da; hau da, bizileku duinik ez dutenei eta gizarteratzeko prozesu bat egiteko zailtasunak dituztenei laguntzea.

Aterpe eguneko zentroa

Eguneko zentroari eutsi egiten zaio, zerbitzu eta prestazio berekin, Eutsi programa barneratuz, arreta pertsonal handiagoa eskatzen duten etxerik gabeko pertsonen arreta eta laguntza eman ahal izateko; helburua da aktibazio pertsonaleko eta kalteen murrizketako prozesuetan, sozializazioan eta partaidetzan laguntzea. 32 plaza ditu. Abendu hasieratik, baliabidea eguneko 24 orduetan egoten da zabalik, arreta hobea eskaini ahal izateko.

Aterpe gaueko zentroa

Gaueko ostatu-zerbitzu honetan 22 plaza eskaintzen ditugu, lehen bezala, eta eremua egokitu egin dugu ahal den heinean pribatutasun handiagoa ahalbidetzeko eta zerbitzuan osasun-gomendioak betetzeko.


Hotzaldi

Hotzaldi gaueko abegi-zentro bat da, afaria ere eskaintzen duena, eta kalean bizi diren pertsonak artatzen ditu. Osasun-gomendioak kontuan hartuz, plazak 30era murriztu dira; hala, pribatutasun eta intimitate handiagoa eskaini ahal izan dira, Caritasek




Onuradunak

(2018-2021)



Inbertsioa

(2018-2021)



bultzatzen dituen zerbitzuetan duintasuna eta kalitatea hobetzeko prozesuaren barruan.

Bidelagun

Harrera-baliabide bat eskaintzen die kalean bizi diren pertsonen arreta eta laguntza ematea eta orientatzea dira. Programaren helburua laguntzea da, baina ez soilik gure zentroetan artatutako pertsonen arreta, baita gure atea jotzen ez duten kaleko pertsonen ere; egoera pertsonala dela-eta, pertsona horiek gure aldetik intentsitate eta moldagarritasun handiagoa eskatzen dute laguntza-prozesuetan eta beren egoera hobetzeko hasi nahi dituzten prozesuetan.

Eusko Jaurlaritzaren Lehen Urratsa programarako sarbidea

Lehen Urratsa programarako Caritasek aurkeztutako proiektu bat onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Programaren helburua zen/da konfinamendua espezifikoari xede horretarako prestatutako aterpeetan igaro zuten etxerik gabeko pertsonen aukerak eskaintzea. Programaren bidez, 46 pertsonari laguntzen ari gara bizirauteko premietan eta etxebizitzaren duina lortzeko bidean, aktibo zituzten gizarteratze-prozesuak indartzuz.

Familiaren, emakumeen eta umeen arloa

Arlo horretan, baliabideak eskaintzen zaizkie pertsona eta familiei, laguntza-programen bidez eta giza sustapeneko prozesuak garatzeko laguntza emanez.

Adore

Helburua familien gaitasunak indartzea eta hobetzea da, laguntza eskainiz, autonomia eta gizarteratze handiagoa lor dezaten, eta, horretarako, trebetasun pertsonalak eta/edo harremanetarakoak gara ditzaten. Hiru familiari eman zaie arreta, hamar pertsonari.


Miriam

Miriam programan gizarte-egoera ahulean dauden emakumeak artatzen ditugu, gizarte- eta familia-laguntza gutxi edo batere ez dutenak. Emakume gehienak (% 71) migratzaileak dira, eta administrazio-egoera irregularrean daude. Emakume horien profilak askotarikoak izaten dira; adibidez, genero-indarkeriaren biktimak eta/edo bidaia ordaintzeko zor ekonomiko bat dutenak eta seme-alabak senideen ardurapean utzi dituztenak.

652 pertsona artatu dira. Horietatik 243k tailer eta prestakuntza-ikastaroren batean parte hartu dute. Orientazioko eta enplegu-bilaketako zerbitzuaren bitartez, 175 familien eskaerak kudeatu dira. Familia horiei arreta eta etxeko-langileen eskubide eta betebeharreri buruzko informazioa eman zaie, eta horrek 74 lan-kontratu egiteko aukera eman du. COVID-19aren eraginak eta mugikortasuna kontrolatzeko hartutako ezohiko neurriek eraginda,


Onuradunak

(2018-2021)



Inbertsioa

(2018-2021)



emakume migratzaileen etorrerak nabarmen jaitsi dira Euskadin, eta, horren isla da Miriamera lehen aldiz iritsi diren emakumeen beherakada ere.

ÖDOS proiektua

Aurten, Ödos proiektuarekin kolaboratzen jarraitu dugu. Proiektu horrek Espainiako kostaldera iristen diren emakumeak hartzen ditu, adingabeak izan ala ez. Bidaiatik errekupezeko Kordoban hilabete batzuk igaro ondoren, bigarren fase batera bideratzen dira, eta bertan sareko kide garen hainbat gizarte-erakunde sartzen gara lankidetzan. Miriam programaren bidez, aurten familia horietako biri (bi emakume eta hiru adingabe) eman diegu laguntza integrala, Donostiako Hermanas Esclavas del Sagrado Corazonek koordinatuta: Marokokoa zen familia bat, eta bestea Ghanakoa. Etengabeko arreta malgua eskaintzen diegu, gizarteratzeko eta etorkizun seguru eta duina eraikitzeko. Ödos programaren

jarduera-eremua Salerosketaren Bigarren mailako Prebentzioa da, zaurgarritasun bereziko egoerei arreta emateko: Ödosen esku-hartze integralaren xede den profila, esplotazio-sareetan erortzeko arriskuan dauden pertsonak dira, mugikortasun-egoeran dauden emakumeak eta adingabeak baitira.

Bultzada

Programa horren helburua da neska-mutilei laguntzea beren eskolatzeak eta sozializazioak irauten duen bitartean, garapen pertsonal eta sozialerako erabakigarria den lehen etapa hori sendotzeko. 25 familia eta 32 ume artatu dira.

Etxebizitzaren eta egoitza-zentroyen arloa

Arlo honen bidez, bizileku-premia izateaz gain, beren bizi-proiektu autonomoan bestelako babesa ere behar duten pertsonak eta familiak artatzen ditugu.

Trintxer-Emeki egoitza-zentroa

Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen bideratutako egonaldi luzerako egoitza-zentroa da. Baliabide honetan egiten den gizarte esku-hartzearen helburua egoitza dauden pertsonen autonomia sustatzea da, bai eta prozesu kronifikatuagoak dituzten pertsonen kalteak geldiaraztea eta kalte horiek murriztea ere.


Artatutako pertsonak: 34 gizon eta 5 emakume

Sorabilla egoitza-zentroa

Egonaldi ertaineko egoitza-zentro bat da Sorabilla, gizarte-bazterketako egoeran dauden 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazte helduak artatzeko. Zentroaren

Onuradunak

(2018-2021)



helburua gazte horiei beren bizi-proiektua modu autonomoan garatu ahal izateko behar dituzten laguntzak ematea da.

Artatutako pertsonak: 23 gizon


Zubia etxebizitza-programa

Programa honen bidez, aldi baterako egonaldia eskaintzen dugu gure etxebizitza-sarean, bai eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza integrala ere pertsonen eta familiei. Helburua da beren gaitasun pertsonalak eta sozialak hobetu ahal izatea, bizitza autonomoagoa gara dezaten.

Artatutako pertsonak: 40 gizon eta 33 emakume

Inbertsioa

(2018-2021)



Ekonomia solidarioaren arloa

Enplegua

CARITAS GIPUZKOAN lana bilatzeko eta gaitasunak hobetzeko prozesuetan laguntzen diegu pertsonen, gero eta lehiakorragoa den lan-merkatuan baldintza berdinetan egoteko. Lana bilatzen ari diren pertsonen ahalegin bat egiten dute, gure enplegu-programak eskaintzen dituen orientazio-, prestakuntza- eta bitartekotza-ekintzetan parte hartuz.

Partaideak: 74 kontratu

- ❖ Cie Automotive Orbelan: 3 pertsona
- ❖ Koopera: 4 pertsona
- ❖ Maria Cristina hotela: 2 pertsona
- ❖ Geotunel: pertsona 1


Lamorous hezkuntza eta okupazio tailerra

Hezkuntza- eta okupazio-baliabide bat da, eta parte-hartzaileei beren bizitzako ibilbidean laguntzen die dituzten gaitasunak sustatuz, hala nola lanerako ohiturak eta higieena, autoestimua eta giza harremanak sustatuz.

Partaideak: 32 pertsona, 26 gizon eta 6 emakume


Onuradunak

(2018-2021)



Inbertsioa

(2018-2021)



Proiektu okupazionalak

Altzako baratze ekologikoak

Bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako okupazio-proiektua Ekialde eta Donostiako baratzeetan. Erabiltzaileei harrera egitea, integratzea eta baratze-prestakuntza ematea du helburu nagusia. Urtean zehar 35 pertsona igaro dira, eta, batez beste, iraunkoriki, hamar parte-hartzaile inguru izan ditu. Zortzi boluntariok ere parte hartzen dute bertan. Martxoaren 3an lehen erointzaren proiektua abian jarri zenetik, taldea finkatzea, nekazaritzako ezagutzekin hastea eta programa ingurunean ezagutaraztea izan dira erronkak. Autokontsumorako saskiak bermatzeaz gain, mugari garrantzitsua izaten ari da astero saski batzuk saltzea pertsona interesdunei, bai eta urriaren 16an Altzako lehen merkatuan parte hartzea ere.

Lazkaoko baratze ekologikoa

Urtean zehar hamabost pertsona inguruk parte hartu dute Caritasen tokiko proiektu honetan. Gaur egun hiru boluntario ditu.



Ehunkide Goierri

Urtean zehar sei emakumek parte hartu dute tailerrean. Era berean, Sarea Fundazioak eta Goiekik, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan, ehungintza-tailer bat jarri dute martxan zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen laneratzea errazteko.

Diziplina anitzeko peoia Goierri

Oinarrizko gaitasunei buruzko ikastaroa egin zuten hamahiru parte-hartzailek.

Finantza etikoak

Caritasek finantza etikoetako egitasmoak sustatzen ditu, dimentsio etiko bat txertatzen duten finantzaketa-sistemen aldeko konpromiso gisa, eta, besteak beste, inbertsio-funts etikoetan inbertitzen du, eta Fiare banku etikoaren alde egiten du, haren bazkide-sortzailea izanik.

Bihoztun enpresak

ENPRESAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

“Bihoztun enpresak” apustu bat, erronka bat, itxaropen bat, enpresekin egindako lankidetzaren proiektu berritzaile bat da, eta eragile ekonomikoak gizarte-ongizatearen garapenean inplikatzeko eta Caritasen garatzen dituen jarduerekin sentsibilizatzea du helburu.

Lankidetzarako aukerak:

- ❖ **Caritasek lagundutako pertsonen lan-merkatuan sartzen lagunduz, lanpostu bat edo lanbide bat ikasteko edo hobetzeko aukera eskainiz.**
- ❖ **Caritasek lantzen dituen arazo sozialak eta garatzen dituen jarduerak zabalduz.**
- ❖ **Proiektu zehatzak laguntzeko dohaintza ekonomikoa eginez.**

Nazioarteko lankidetzak

2021ean, gure munduak aurrekaririk gabeko krisi globala bizi izan du, eta arrasto sakonak utziko ditu. Krisi horrek, globala izan arren, modu desberdinean eragiten die pertsonen kolektiboari, herrialdeei eta eskualdeei; beraz, lankidetzak, konpromiso kolektiboa eta elkartasun globala funtsezkoak dira bizi-prozesu honetan. CARITAS GIPUZKOAREN misioa pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurka egitea



da, eta bere ekintzaren berezko zati bat karitatearen dimentsio unibertsala da.

Tokiko elizekiko hurbiltasunetik, CARITAS GIPUZKOAK jabetzen da COVID-19ak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta politikoa gure munduko herrialde pobretuenetan eragiten ari den arriskuez eta oraingo eta etorkizuneko eraginez, herrialde horietako sistema sanitario, ekonomiko eta sozialen ahuleziak milioika pertsonen ahultasuna areagotzen baitute.

Kenya	50.000€
El Salvador	80.000€
Puerto Rico	55.000€
Dominikar Errepublikak	54.500€
Ekuador	42.300€
Guatemala	49.984€
Benin	16.000€
Bolivia	174.600€
Filipinak	25.700€
Inbertsioa, guztira	548.084€



Bidezko merkataritzako produktuek lan duina bermatzen dute

Kitzin, Bidezko Merkataritzako denda

Beharrezkoa da bidezko merkataritza-harremanen esparru bat, bai eta bizitzaren zaintza bermatuko duen kontsumo arduratsuaren eredu bat ere. Bidezko merkataritzak komunitate ekoizleak ahalduntzen ditu, haurrak babesten ditu, eta lan duina bermatzen du desabantaila soziala duten pertsonentzat.

CARITAS GIPUZKOAK, KITZIN bidezko merkataritzako dendaren bitartez, justizia sozialean oinarritutako merkataritza-harremanen eredu hau bultzatzen du, ekintza, mobilizazio eta salaketaren bidez, sentsibilizazio-kanpainetan parte hartuz, nazioarteko merkataritzako praktika bidegabeak eraldatzeko eta milaka ekoizle behartsuri laguntzeko.

Komunikazio eta eraginen, prestakuntzaren eta boluntariotzaren arloa

Boluntariotzaren mugarrak

Boluntariotza parte hartzeko eta gizartea eraldatzeko era bat da, gure gizatasunaren dimentsio bat garatzen duena: enpatizatze gaitasuna ematen digu, eta gure gizarteko egoera bidegabe eta zaugarrienei elkartasuna adierazteko gaitasuna. Caritasen nortasunaren ezaugarri da, laguntza ematen duen komunitate batena, eta "Joan eta egin zuk ere gauza bera" mezuari erantzuten diona (Lk 10, 37). 2021ean 180 pertsona etorri ziren Caritasera, hainbat programa, zentro edo artziprestazgotan laguntzeko. Gipuzkoako gizartearentzat boluntariotzarako aukera izaten jarraitzen dugula adierazten digu kopuru horrek. Boluntario berrien harrera, bideratzea eta laguntza hobetzeko, ZAINDU izeneko boluntario-talde bat jarri dugu



martxan, eta sartzeko-prozesu horretan hainbat eratako laguntza ematen du. Bestalde, 2021eko ekintza esanguratsu gisa jasotzen dugu, erakundeak, bere gizarte-lana utzi duten boluntarioei egindako agurra eta esker ona. Ekainean, boluntariotza hobetzeko datozen urteetarako planaren ondorioak aurkeztu genituen batzarrean, erakunde osoan parte-hartze prozesu bat egin ondoren.

Caritas Gazteak

Erakundearen boluntariotza-estrategiaren apusturik garrantzitsuena azaroan gauzatu da, CARITAS GAZTEAK programaren hasierarekin, HEZKIDE ESKOLAREKIN lankidetzan. Jarduera zehatz eta bereziak diseinatu dira, gazteei arreta jartzeko erakundearen sartzeko prozesuan.



Prestakuntzako mugarrak

“Gehien sufritzen duten pertsonen zerbitzura gaudenok profesionalki gaituak izan behar dugu; laguntza ematen dugunok prestakuntza behar dugu, egokiena eta modurik egokienean egiten jakin ahal izateko” (BENEDIKTO XVI.a, Deus caritas est). Ez diogu ikaskuntzari uko egiten, boluntarioekin zein kontratatutako langileekin, gure gizarte-arreta hobetzeko. Boluntarioek zortzi prestakuntza-tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten; eta, besteak beste, laguntza, nola entzun, espiritualtasuna, etika eta zaintza landu zituzten, 50 ordu inguruan, eta 100 pertsonak parte hartu

zuten. Gure gizarte-ekintzan garrantzitsua den estrategia hori indartzeko, ikasturte honetan boluntarioen kezkak biltzen hasi gara, erakundearen prestakuntza-plana definitzen lagunduko digun inkesta baten bidez.

Sentsibilizazioa, komunikazioa

Pixkanaka-pixkanaka, hazten jarraitzen dugu sare sozialetan, non CARITAS GIPUZKOAK elkartasun-mezua igortzen duen, laguntzen dituen errealitateak eraldatuko dituen konpromisoa aktibatuzko. CARITAS GIPUZKOAREN kanpaina nagusiak antolatu ditugu, eta esanguratsua izan da aurten etxerik gabekoei buruzko kanpaina konfederala: “Irtenbiderik gabe? Babesten ez duen gizarte-babeseko sistema batean galduta” izan du lelotzat. Ikastetxe eta unibertsitateekin elkarlanean jarraitzen dugu, baina pandemiak eragin handia izan du arlo horretako jardueretan. Jendeaurreko erakundearen ekintza publikorik nabarmenena urtarilaren 5ean egin zen, OPIL

SOLIDARIOarekin. Ekitaldi horren bigarren aldia babes-neurri zorrotzekin izan zen, COVID-19agatik.

Gizarte-eragina eta sareko lana

Nabarmenezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiaren bakardadeen aurkako HARIAK estrategian talde eragile modura parte hartu dugula. Esparru

instituzional hori erreferentea da eta izango da datozen urteetan, eta Caritasek hitza izaten eta parte hartzen jarraitu nahi du. Era berean, gure esperientzia aurkeztu dugu Donostiako Deustuko Unibertsitatearen bitartez, estatu espainiarrean bakarrik dauden adingabe migratzaileen ibilbideei buruzko ikerketan, Bartzelonako Unibertsitateko Gizarte Laneko Departamentua buru dela. Gure eliz bokazioak bultzatuta, beste erakunde batzuekin ere lan egiten dugu, artatzen ditugun pertsonen ematen diegun laguntzari esker daukagun esperientzia eta gakoak emateko aukera ematen diguten gizarte-errealitateetan, eraldatu ahal izateko.

Kudeaketa eta administrazio-arloa

Aholkularitza juridikoko zerbitzua

Donostiako elizbarrutiko Caritasen aholkularitza juridikoak erakundearen programa guztiei eman nahi die zerbitzua, profesional-taldee, langile boluntarioei eta partaideei lagunduz. Aholkularitza horretan, arreta berezia eskaintzen zaie emakumei eta etxerik gabeko pertsonen.

1.348 pertsonari eman zaie arreta, 698 gizoni eta 650 emakumeri. Arreta, batez ere, kontratazioei buruzko informazioan eta aholkularitzan oinarritzen da, bai enplegatzaileei, bai langileei. Horrela, bi aldeek legezko inplikazioak eta akordioaren xehetasunak jakinda, lan-harremana segurtasun handiagoz gara dezakete. Parte-hartzaileei dagokienez, beste arlo batzuetan ere ematen dugu aholkularitza: atzeritarren egoera juridiko administratiboaren erregularizatzeko, baimenak berritzeko, SEPEren egoitza




elektronikoan izapideak egiteko, Gizarte Segurantzaren zein Ogasunean izapideak egiteko eta Espainiako nazionalitatea eskatzeko.

2021ean, Espainiako nazionalitatea lortzeko eskaerak aurkeztu ditugu, Espainian jaio eta urtebeteko legezko bizilekua duten adin txikikoentzat. Kode zibileko baldintzak betetzen dituzten emakume langileentzat ere aurkeztu ditugu. Emate-erritmoa oso egokia da. Atzerriko 50 familiaren berrelkartzea eta adin txikikoen errotzea ere gauzatu ahal izan dugu.

Lorpen garrantzitsuengatik pozik egoteko arrazoi asko izan arren, ezin dugu ahaztu alderdi asko hobetu behar ditugula, gure esku-hartzearen eta parte-hartzaileen onerako.

Baliabideen jatorria



Finantzaketa eta gardentasuna

Kanpoko enpresa batek urtero ebaluatzen ditu Donostiako Elizbarrutiko Caritasen kontuak. 2021. urtean ALTER CONSULTING enpresak egin du kanpo-ikuskapen hori.

	Inbertsioa	Partaideak	Boluntariotza	Kontratazioak
Lurraldeko ekintzaren arloa	4.023.527€ % 41	12.604	596	11
Etterik gabeko pertsonen arloa	1.765.309€ % 18	351	181	26
Familiaren, emakumeen eta umeen arloa	208.792€ % 2	694	36	6
Etxebizitzaren eta egoitza-zentroen arloa	1.429.978€ % 15	94	30	21
Ekonomia solidarioaren arloa	1.010.999€ % 10	141	15	4
Komunikazio, prestakuntza eta boluntariotzaren arloa	138.056€ % 1		2	2
Kudeaketa- eta administrazio-arloa				
Erakundeentzako laguntza	30.845€ % 1			
Kanpo-zerbitzuak eta aholkularitza juridikoa	386.610€ % 4	1.348	8	5
Higiezinak	454.625€ % 5			
Kudeaketa-gastuak	262.205€ % 3			
Jardueraren bolumena, guztira	9.710.946€	15.232	868	75

Fundazioak

Donostiako Elizbarrutiko Caritasen bere atea jotzen duten pertsonen askotariko arazoak modu espezializatuan artatzen dituzten bost **fundazio** ditu.

1.- Izan fundazioa

1984an eratu zen irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu gisa, mendekotasunak tratatzearen arloan jardura eta zerbitzu sorta zabal bat sortzeko, garatzeko eta hobetzeko helburuarekin. Haren programa nagusiak hauek dira: drogaren menpekoei eta haien familiei arreta integrala emateko **Gizakia Helburu** programa eta nerabezaroaren berezko arazoak jorratzen dituen **Norbera** programa.

www.izan.org

2.- Hurkoa fundazioa

1990. urtean sortu zen, eta haren helburua da ahulezia-, mendekotasun- edo babesgabezia-egoeran dauden adineko pertsonen edo gaixotasun mentala duten pertsonen eskubideak artatzea, babestea eta defendatzea.

www.hurkoa.eus

3.- Hurkoa Zainduz fundazioa

2013an sortu zen, mendekotasuna duten adineko pertsonak eta haien zaintzen dituzten familiak artatzeko helburuarekin.

www.hurkoa.eus

4.- Gizaide fundazioa

1997. urtean sortu zen, gaixotasun mentala duten pertsonak artatzeko. Baliabide hauek ditu:

- ❖ Eguneko zentroa gaixotasun mentala duten pertsona helduentzat.
- ❖ Gaixotasun mentala duten emakumeentzako etxebizitza, intentsitate handiko zainketa duena.
- ❖ Gaixotasun mentala duten pertsonentzako bi etxebizitza, intentsitate ertain eta txikiko zainketa dutenak.

www.gizaide.eus

5.- Sarea fundazioa

1997. urtean sortu zen, lana lortzeko desabantaila larriak dituzten kolektiboaren artean lan-munduan txertatzeko jarduerak sustatzeko eta enplegua sortzeko.

www.sarea.com

Eskerrik asko

Pertsona guztientzat berriro ere hain zaila izan den urte honetan,
eskerrak eman nahi ditugu.

Eskerrik asko, aurrekaririk gabeko egoera honetako min eta zailtasunak
gorabehera, krisi honek pertsona bakoitzaren onena atera duelako
eta gizarte gisa indartu gaituelako.

Eskerrik asko boluntarioei eta kontratatuei, buru-belarri aritu direlako
eta aparteko egoeren aurrean egokitzeko gaitasuna erakutsiz, une oro
pertsona zaurgarrienen ondoan egon direlako.

Dohaintza-emaileei, erlijio-erakundeei, enpresei eta gainerako laguntzaileei
ere bai, haien elkartasuna eta konpromisoa funtsezkoak izan baitira gure
programak indartzeko eta zabaltzeko.

Hirugarren sektoreko erakundeei eta administrazio publikoei,
ahaleginak batzeagatik eta koordinatuta lan egiteagatik.

Inoiz baino indar handiagoarekin,

eskerrik asko

